


Nola jantzi ekitaldi baterako

Nola jantzi ekitaldi batera gonbidatzen bagaituzte?

Askotan hori izaten da lehenengo galdera: "Zer jantziko dut?"



Modan aditua dugu Jokin Ayerregaray lasartearra. Elkarrizketa honetan ekitaldietarako aproposak diren look-ak edo janzkerak aukeratzeko aholkuak emango dizkigu.



Jokin Ayerregaray moda-aditua
Irudia: Euskadi Irratia

Nolako janzkera aukeratu?,

zer egin?... eta zer ez?, eta horrelako galderai erantzuten lagunduko digu.



<https://labur.eus/jxDvX>

Elkarrizketa entzun eta erantzun galderei

Orain, audioa entzun eta galdera bakoitzaren erantzun egokia aukeratu beharko duzu. Behar izanez gero, behin baino gehiagotan entzun galdera bakoitzari dagokion zatia.

Zer gertatzen zaigu jantziarekin ekitaldi batera gonbidatzen gaituztenean?

- a) Gure irudiari ematen diogula lehentasuna.
- b) Gure bertsiorik dotoreena eman nahi dugula ekitaldian.
- c) Arropa kontuetan kosta egiten zaigula gure konfort-eremutik urruntzea.

Jokinek zer egiten du ekitaldi batera gonbidatzen badute?

- a) Eguneroko jantziaren aldaera dotore bat bilatzen du.
- b) Kanpoko erreferentziei erreparatu ideiatxoren bat hartzeko behintzat.
- c) Berdin zaio eguneroko jantzia eta ekitaldikoa oso desberdina izatea

Nolako janzkera aholkatzen digu Ayerregarayk ekitaldi batera gonbidatuta joateko?

- a) Ekitaldiko protagonista sentiaraziko gaituena, look perfektua.
- b) Beste gonbidatuen artean destakatzeko look deigarria.
- c) Look dotorea eta, aldi berean, normala, atentziorik ez emateko modukoa.

Zer akats egiten du jendeak ekitaldi baterako irudia, edo look-a, aukeratzean?

- a) Interneten denbora gehiegi pasatzea ekitaldirako look egokia bilatzen.
- b) Ekitaldietarako janzkerak bere horretan Internetetik kopia nahi izatea.
- c) Gonbidatzaile perfektua izan nahi izatea.

Zer hartu behar da kontuan, moda-adituaren ustez, ekitaldi baterako look-a aukeratzean?

- a) Ekitaldia zein urtarotan izango den.
- b) Gonbidatuen kultura-maila zein den.
- c) Ekitaldia non den.

Zer proposatzen du Jokin Ayerregarayk egitea aukeratutako look-arekin?

- a) Ekitaldiaren aurreko egunetan elikadura ondo zaintzea.
- b) Look guztia etxean probatzea ekitaldiaren eguna baino lehen.
- c) Egun batean zapatak erosi eta probatu etxean, hurrengo egunean soinekoa, ...

Zein aholku ematen die gizonezkoei ekitaldietarako janzteko?

- a) Ekitaldirako look-a gure eguneroko estilora egokitzea.
- b) Ekitaldiak estilo berriak probatzeko aprobetxatzea.
- c) Betiko modari jarraitzea.

ERANTZUNAK

Zer gertatzen zaigu jantziarekin ekitaldi batera gonbidatzen gaituztenean?

- a) Gure irudiari ematen diogula lehentasuna.
- b) Gure bertsiorik dotoreena eman nahi dugula ekitaldian.**
- c) Arropa kontuetan kostatzen zaigula gure konfort-eremutik urruntzea.

Jokinek zer egiten du ekitaldi batera gonbidatzen badute?

- a) Eguneroko jantziaren aldaera dotore bat bilatzen du.**
- b) Kanpoko erreferentziei erreparatu ideiatxoren bat hartzeko behintzat.
- c) Berdin zaio eguneroko jantzia eta ekitaldikoa oso desberdina izatea

Nolako janzkera aholkatzen digu Ayerregaraik ekitaldi batera gonbidatuta joateko?

- a) Ekitaldiko protagonista sentiaraziko gaituena, look perfektua.
- b) Beste gonbidatuen artean destakatzeko look deigarria.
- c) Look dotorea eta, aldi berean, normala, atentziorik ez emateko modukoa.**

Zer akats egiten du jendeak ekitaldi baterako irudia, edo look-a, aukeratzean?

- a) Interneten denbora gehiegi pasatzea ekitaldirako look egokia bilatzen.
- b) Ekitaldietarako janzkerak bere horretan Internetetik kopiatu nahi izatea.**
- c) Gonbidatzaile perfektua izan nahi izatea.

Zer hartu behar da kontuan, moda-adituaren ustez, ekitaldi baterako look-a aukeratzean?

- a) Ekitaldia zein urtarotan izango den.
- b) Gonbidatuen kultura-maila zein den.
- c) Ekitaldia non den.**

Zer proposatzen du Jokin Ayerregaraik egitea aukeratutako look-arekin?

- a) Ekitaldiaren aurreko egunetan elikadura ondo zaintzea.
- b) Look guztia etxean probatzea ekitaldiaren eguna baino lehen.**
- c) Egun batean zapatak erosi eta probatu etxean, hurrengo egunean soinekoa, ...

Zein aholku ematen die gizonaek ekitaldietarako jantzeko?

- a) Ekitaldirako look-a gure eguneroko estilora egokitzea.**
- b) Ekitaldiak estilo berriak probatzeko aprobetxatzea.
- c) Betiko modari jarraitzea.

TRANSKRIPZIOA

Esataria 1. Jokin Ayerregaray, arratsalde on.

Jokin Ayerregaray moda-blogaria. Arratsalde on.

Esataria 1. Toldo bateko oihala aproposa izan al liteke ezkontza bateko soinekoa egiteko?

Jokin Ayerregaray. Soinekoa egiteko, adibidez, zurrunegia dela uste dut, baina traje bat egiteko zergatik ez? (barreak)

Esataria 1. Bai. Ze(ren) gaur hain zuzen ere zurekin hori egingo dugu. Ekitaldi baterako gonbidapena jasotzen dugunean, askotan hori izaten da lehenengo galdera, ezta?: "Zer jantziko dut?" Gaurkoan, ekitaldietarako aproposak diren look-ak (janzkerak) edo arropari buruz hitz egingo diguzulako.

Jokin Ayerregaray. Bai. Hori da, ze(ren) horrelako gonbidapen bat jasotzen dugunean ez?, gure irudiari garrantzi handia ematen diogu eta gure bertsio(rik) hobereana, ez?, edo dotoreena erakutsi nahi dugu. Baina askotan gure estilotik edo konfort-eremu horretatik eta baita gu geu garen horretatik urrundu egiten gara, ez? Askok idealizatzen ditugu kanpotik dauzkagun irudiak edo erreferente horiek, eta askotan ba ez da oso zuzena hartzen dugun bide hori. Nik horrelakoetan egiten dudana da pentsatu: "Ni nola jantzen naiz normalean?" Eta horren bertsio dotore bat bilatuko dut. Eta entzuleak ere hori egitera gonbidatzen ditut ze(ren) bueno, hori da nik uste zeure burua ondo ikusi eta ispilu aurrean jartzen zarenean errekonozitzeko (ezagutzeko) modua, ze(ren) egin dezakezun gauza okerreana da kristoren look-a pentsatu, zortzi buelta eman, ezkontza-egunean jantzi, eta esan: "Nora noa ni horrela?".

Esataria 2. Egin dezakezun gauzarik okerreana aipatu duzu. Aipatuko ditugu akats gehiago, ze(ren) beharbada horrela ikasiko dugu. Zein da gehien errepikatzen den akatsa?

Jokin Ayerregaray. Badago akats nagusi bat, eta geroz eta gehiago ikusten da ekitaldietan, eta da pentsatzea gonbidapena jasotzen duzun momentutik zu zarela ekitaldi horretako protagonista.

(barreak)

Jokin Ayerregaray. Eta aizu, gonbidapen bat baldin badaukazu argi eduki behar duzu zu gonbidatua zarela eta eman dizun hori dela protagonista. Eta orduan, saiatu behar gara look bat osatzen, baina bueno, *del montón* (arrunta) esaten dena, ez?, ez destakatzeko, (nabarmentzeko) baizik eta bueno, txukun eta zu dotore ikusteko baina ez izateko deigarriena.

Esataria 2. Ekliptseak orduan zeruan bai, baina...

Jokin Ayerregaray. Ez dira oso komeni. Ez. Ez.

Esataria 2. ... horrelako ekitaldietan ez.

Esataria 1. Horrelakoetan zer egin behar dugun look-arekin asmatzeko? Nola saihestu ditzakegu aipatu berri ditugun akats horiek?

Jokin Ayerregaray. Bueno ba, orain egia da badagoela oso modan gonbidatu perfektuaren ideia hori, ez? Eta berehala sarean ikertzen hasten garenean look-ak bilatzeko, ze(ren) hori denek egiten dugu, ez?, berehala topatuko dituzu instagram eta blog pila bat: *invitada perfecta*, *invitada trendy*... (gonbidatu perfektua, gonbidatu modakoa) Zer gertatzen da? Mundu guztia saiatzen dela hemen dauden look-ak errepikatzen edo erreplikatzeko, ez? Eta uste dut ez dagoela hori egitea baino akats zabalduagorik. Zergatik? Kontu hauetan topatzen ditugun erreferentzia guztiak, edo modeloak dira edo dira soineko horiek jantzi eta instagramerako look bat osatu duten influentzerrak.

Zer gertatzen da? Hori gure bizitza errealeran eramaten dugunean ez duela funtzionatzen, ze(ren) jantzita dauzkaten takioiak ez dira oso erosoak, soinekoa ez dago pentsatuta ezkontza batean bezala hamabi orduz jantzita eramateko, ez digu arnasten uzten...

Orduan, horrelakoetan kontuz ibili behar dugu, ze(ren) irudietan ikusten dena askotan ez dator errealtatearekin bat. Eta bai, oso dotorea da baina ez da guk behar duguna. Eta beste kontu bat da ere kultura-kontuak ere piska bat oharu behar gara badaukala garrantzia. Zergatik? Ezkontza bat Madrilan, ezkontza bat Sevillan edo ezkontza bat Donostian ez da gauza bera. Eta kasu honetan horrelako kontuak ba asko Andaluziako ezkontzen kulturaren, edo Madrilgo ohituretan daude oinarritua, eta zer gertatzen da? Ba hemen, egokitu behar duzula zu zoazen ekitaldi horretara. Orduan, zuk erreferente bat bilatzen baduzu benetan gustatu zaizuna, saiatu hori zure erosotasuneran eramaten. Hasteko, probatu beti gauzak, *o sea* (alegia) probatu look osoa etxean... Zapata berriak erosten badituzu, ez jantzi lehenengo aldiz soinekoarekin ezkontza-egunean... Takoidun zapata infinitu batzuk jartzen badituzu, jostorratz-takioia daukaten horietakoak, bai, argazkian oso polita gelditzen da, bai, baina, adibidez, ezkontza jardina (lorategi) batean bada ez dituzu 3 pausu emango.

Esataria 1. Jokin, emakumeei buruz hitz egin dugu, baina gizonen kasuan zer dago modan?

Jokin Ayerregaray. Ba bueno, moda asko aldatzen ari da kasu honetan, ez? Eta nik gomendatzen dudana da beti zure eguneroko estilo horretara egokitzea, ez? Ba adibidez, ez badugu eguneroko alkandorarik erabiltzen edo zapatarik, ez erosi batzuk egun horretarako, ze orain joera da gainera trajearekin, edo kamiseta bat jartzea edo deportibak (kirol-oinetakoak). Orduan, hori zureganatu eta aprobetxatu. Aizu, inork ez dizu ezer esango.

Esataria 1. Jokin Ayerregaray, eskerrik asko.

Jokin Ayerregaray. Ondo izan.